

HONDARRIBIA / Liburu elektronikoak eta Tabletak utziko dituzte

Atzo jarri zuten zerbitzu berria abian eta hala, lau liburu elektroniko eta bi Tablet hartzeko aukera eskainiko dute liburutegian. "Beldur gehien duten erabiltzaileei eskaini nahi diegu teknologia berrien zerbitzu hau", azaldu du Kotte Guevarak, liburutegiko arduradunak.

Zerbitzua azken hilabetetan gailu hauen gaineko informazio eskaeren ondorioz martxan jartzea erabaki dute, "teknologia berriek eskaintzen dituzten abantailak frogatzeko aukera eskaini nahi dugu", gehitu du Guevarak.

Liburu elektronikoa, bi astez

Euskarazko, gaztelerazko eta bestelako hizkuntzatan argitaratutako liburuak irakurri daitezke, eta nobedadeak gehitzen joango dira.

Liburu elektronikoak hemezortzi urtetik gorakoek hartu ahalko dituzte hamabost egunez, eta Tabletak liburutegian bertan erabili ahalko dira, bi orduz gehienez. "Liburuekin egiten dugun bezala, gailua galdu eta ondatu ezkerro, erabiltzaileak bere gain hartuko du", bukatu du Kottek.